



IRIZPEN ZK.: D20-002

DIZIPLINA-PROZEDURETAN DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA EGITEARI BURUZKO IRIZPENA

AURREKARIAK

LEHENENGOA: Datuak Babesteko Euskal Bulego honetan galdera bat jaso da, Ertzaintzako kideei izapidetutako diziiplina-espedienteetan instruktore eta/edo idazkari izendatu ez diren langileek parte hartzeari buruz. Zehazki, Bulegoari honako galdera hauek egin zaizkio:

«Espediente baten instruktoreak baimena eman ahal dio hirugarren funtzionario bati, idazkari izendatuta egon ez arren, espedienteen agertzen diren pertsonen datu pertsonalak eskuratu eta tratatzeko?»

Espedientea ireki zaion pertsonak ez du nahi datuak ezagutzeko legezko ardurarik ez duen pertsona batek espedienteko datuak ezagutzerik; ahal eta guztiz ere, espediente hori atzitzen eta tratatzen jarraitu da; beraz, urratzen al dira Datuak Babesteko Legea eta, horrekin bat Espainiako Konstituzioaren 18. artikuluko eskubidea?».

BIGARRENA: Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoaren 17.1 artikuluko n) apartatuak honako eginkizun hau esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

«Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkieten galderei erantzutea».

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Datu pertsonalak babesteari buruz gaur egun honako lege hauek daude indarrean: bata da 2018ko maiatzaren 28az geroztik indarrean dagoen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena (Datuak babesteko erregelamendu orokorra); eta bestea da Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, 2018ko abenduaren 7az geroztik indarrean.



Era berean, horiez gain, otsailaren 25eko 2/2004 Legea, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa ezarri behar da Euskal Autonomia Erkidegoan, baita lege hori garatzeko araudia ere, aurreko beste arau horiek xedatutakoarekin kontraesanean ez badago.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 4.1 artikulua honela definitzen ditu datu pertsonalak:

«Pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri ("interesdun") bati buruzko informazio guztia; pertsona fisiko identifikagarria da zuzenean edo zeharka, eta batez ere identifikatzaile baten bitartez, identifikatzaile pertsona oro; identifikatzaile hori izen bat izan daiteke, identifikazio-zenbaki bat, kokapen-datuak, online identifikatzaile bat edo pertsona horren nortasun fisikoari, fisiologikoari, genetikoari, psikikoari, ekonomikoari, kulturalari edo sozialari buruzko elementu bat edo gehiago».

Eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 4.2. artikulua definitzen du zer den datu pertsonalen tratamendua:

«Datu pertsonalen gainean edo datu pertsonalen multzoen gainean egiten den edozein eragiketa eta eragiketa-multzo, prozedura automatizatuak erabili zein erabili gabe, hala nola: datu-bilketa, erregistratzea, antolatzea, egituratzea, kontserbatzea, egokitzea edo aldatzea, ateratzea, kontsultatzea, erabiltzea, transmisioz lagatzea, hedatzea edo irispidean jartzeko beste edozein forma, datuak alderatzea edo interkonektatzea, mugatzea, ezabatzea edo suntsitzea».

Datu pertsonalen tratamendu orok Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5. artikuluan jasotako printzipioak bete behar ditu, eta horien artean zilegitasun-printzipioa (5.1a artikulua). Printzipio hori betetze aldera, datu pertsonalen tratamendu orok legitimatuta egon behar du, hau da, oinarri juridiko bat egon behar da. Oinarri juridiko horiek Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6. artikuluan jasotzen dira eta, datu-kategoria bereziak direnez, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 9.2 artikuluan ere bai.

Tratamendua legitimatzen duten oinarri juridikoetako batzuk dira honako hauek: lege-eginbeharra betetzea (6.1c artikulua), interes publikoaren izenean izatea edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzea (6.1e artikulua). Bi oinarri juridiko horiek Europar Batasuneko Zuzenbidean edo arduradunari ezartzen zaion Estatu kideko Zuzenbidean xedatuta egon behar dute (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.3 artikulua), eta kasu honetan 3/2018 Lege Organikoaren 8. artikulua agintzen du halako datu tratamenduak lege izaerako arau batean ezarri behar direla.

Halaber, nabarmendu behar da Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko Legeak 27. artikuluan sistema indartua ezarri duela administrazio-arloko arau-hauste eta zehapenekin loturiko datuen tratamendurako, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak horri buruz ezer ere azaltzen ez duen arren. 27. artikulua horretan bildutako legezko manuairen arabera, administrazio-arloko arau-hauste eta zehapenekin loturiko datuen tratamendurako legitimatuta egongo dira zehapen-prozedura bideratzeko organo eskudunak, arau-hausteak aitortzeko edo zehapenak jartzeko, baldin eta tratamenduak zer helburu duen, hori lortzeko behar diren datuen eta ez gehiagoren tratamendua bada.



Horren haritik, honako hau ohartarazi behar da: datu pertsonalen babeserako funtsezko eskubidea taxutzen duten printzipio nagusietako bat izan arren, ez da printzipio bakarra; beraz, datuen tratamenduak datu pertsonalen babeserako araudia beteko badu, gainerako printzipioak errespetatu beharko dira, eta horien artean, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5 1.c) artikuluan jasotzen den datuak minimizatzeko printzipioa. Printzipio horrek dioenez, datu pertsonalak *«egokiak, beharrezkoak eta ezinbestekoaren neurrira mugatuak izango dira, haien tratamenduaren helburuen arabera»*.

Oinarrizko printzipio horren bidez bermatu nahi da lortu nahi diren helburuetarako ezinbestekoak diren datu pertsonalak soilik trata daitezela; bestalde, datu pertsonalen tratamendu guzti-guztiei buruz txostena egin beharko da.

II

Galderaren hariari helduta, honako kasu hau planteatzen da: ertzain baten aurkako diziiplina-prozedura hasi da; prozedura horretan instruktorea soilik izendatu da, eta froga gauzatzean (lekuko-deklarazioak) izapidetzen ari den espedientearekin zerikusirik ez duen beste funtzionario bat aurkeztu da; gainera, funtzionario hori ez du organo eskudunak izendatu. Galderan azaltzen denez, funtzionario horrek deklarazioan parte hartu du, ukitutako pertsonak horren aurkako jarrera agertu arren.

4/1992 Legeak, uztailaren 17koak, Euskal Herriko Poliziari buruzkoak, III. tituluko VII. kapituluak (90.etik 97. ter.era bitarteko artikulak) Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoen diziiplina-araubidea ezartzen du, eta 95. artikuluan xedatzen duenez, diziiplina-prozedura erregelamendu bidez arautuko da.

Erregelamendu bidezko garapen hori maiatzaren 3ko 170/1994 Dekretuaren, Euskal Herriko Polizia Kidegoen Diziplinazko Araudia onartzen duenaren bidez ezartzen da (EHAA, 1994ko ekainaren 29koa, 123. zk.). Erregelamenduaren 31. artikuluan ezarrita dagoenez, zigorra jartzeko gaitasuna duten organo berberak izango dute diziplinazko prozedurari ekiteko gaitasuna. Era berean, Erregelamenduaren 32. artikuluan xedatzen duenez, *«Hutsegite oso larriengatik edo larriengatik ireki daitezten diziplinazko prozedura guztietan, horiek irekitzeko agindua eman duen agintariak Instruktorea edo, hala badagokio, Idazkaria izendatu, edo horren instrukzioaren ardura horrexetarako eratutako polizi-unitateari izendatuko dio....»*.

Esandako guztia kontuan hartuta, ondorioztatu behar da Euskal Herriko Poliziaren Legea nahikoa lege-gaikuntza dela diziiplina-ahal baliatzeko eta, ondorioz, nahikoa lege-gaikuntza ematen diela diziiplina-prozedura izapidetu eta ebazteko ardura duten organoei, diziiplina-ahal hori baliatzeko beharrezkoak diren datu pertsonalak tratatzeko.

Prozedura izapidetzeko eta ebazteko ardura izango dute informazioa eskuratu behar duten pertsonak, baina erakundean organo horiei euskarria eta administrazio-arloko laguntza eman behar dieten langileek ere bai, datu horien tratamendua legez agindutako eginkizunak betetzeko beharrezkoa den heinean. Galderaren xede den kasuan, instruktore ez den funtzionario batek esku hartzen du lekukoen deklarazioan, egintza garatzeko beharrezkoak diren eginkizun osagarriak eginez; bada, azaldu den guztia gertatuko balitz, bere zeregina garatzeko behar-beharrezkoak diren datu pertsonalen tratamendua bat etorriko litzateke datuak babesteko araudiarekin.



Nolanahi ere, gogora ekarri behar da jarduketa horietan esku hartzen dutenek beren zereginak betetzen dihardutenean eskura duten informazioa isilpean gorde beharko dutela nahitaez, baita lan hori utzi eta gero ere.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 17a